

3

Gaurko gazteak, biharko gurasoak

Pello Jauregi

*EHU/UPV Euskal Herriko Unibertsitatea
(Hezkuntza Zientzietan Doktorea. EHUko irakaslea,
Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Donostian)*

pello.jauregi@ehu.es

Sarrera-data: 2014-10-8 / Onarte-data: 2014-12-19

Laburpena. Artikulu honetan, Lasarte-Orian eginiko epe luzeko ikerketa baten berri ematen da. Ikerketak abiapuntua du 1992. urtean Joxe Mari Iraola soziologoak zuzendutako lanean, ondoren 2002tik 2012ra bitartean bigarren partearekin osatu zen. Lanaren emaitzaren bitartez hizkuntza jokaeretan familien eta gazteen arteko harremanean zein diren joera nagusiak aztertzen dira. Etxeak eta eskolak euskararen sozializazioan duten harreman desberdinak baina konparagarriak aztertuko dira. Azken finean artikuluak, belaunez belauneko hizkuntzaren transmisioak hizkuntza normalizazioarako duen egundoko garrantziaz ohartarazi nahi du irakurlea. • **Hitz-gakoak:** hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-erabilera, eragileak, euskara, gazteak.

Abstract. This paper reports on a long-term piece of research conducted in Lasarte-Oria. The research has its starting point in the work directed by the sociologist Joxe Mari Iraola in 1992, which was subsequently completed with a second part from 2002 to 2012. Through the results of the work, an analysis has been made to see what the main trends are in the relationship between families and young people in terms of language behaviour. The paper will analyse the different but comparable relationships that home and school have in the socialization of Basque. Basically, it sets out to draw attention to the tremendous importance of generational language transmission in language normalisation. • **Key words:** language habits, language use, players, Basque language, young people.

SARRERA

I

1992. urtean, lehen aldiz aztertu zuen Lasarte-Oriako euskara zerbitzuak udalerriko gazteen hizkuntza egoera, Joxe Mari Iraola soziologoak zuzenduta. Lan horri jarraipena emanda, 2002. urtean ikerketa beraren bigarren atala burutu zen, nire ardurapean. Eta, 2012. urtearekin batera, azkenik, ezagutzera eman dugu egungo gazte lasarte-oriatarren hizkuntza egoera. Serie historiko honek aukera eman digu denbora tarte luze batean ikusteko zein aldaketa eman diren eta zein joera ageri diren finko eta iraunkor hizkuntza jokoeretan eta bestelako hizkuntza adierazleetan. Artikulu honetan, familia eta gazteak lotzen dituzten hainbat gai jorratu nahi ditugu, beti ere ikerketaren datuetan oinarriturik. Etxeak, hizkuntza sozializazio eremu gisa, duen pisua azalduko dugu, eta, ahal denetan, eskolak duen eraginarekin alderatzen saiatuko gara. Datu ugari emango ditugu erakusteko zein lotura estua dagoen etxeko hizkuntzaren eta lagunarteko hizkuntzaren artean. Aurrera begira ere jarriko gara, iradokitzeko, datuetan oinarriturik, gazteen hizkuntza jokoeraz zer espero daitekeen, haiek guraso bihurtutakoan. Artikuluak, finean, belaunetz belauneko hizkuntzaren transmisioak hizkuntza normalizaziorako duen egundoko garrantziaz ohartarazi nahi du irakurlea.

FITXA TEKNIKOA

I

Artikulu honetan aipatuko diren datu guztiak ondorengo liburuan daude argitaratuak: Pello Jauregi (2013): *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (III). 20 urteko bilakaera*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala. Euskararako Batzordea.

Ikerketa honen datuak 2012ko martxoaren 19tik 30ra bitartean jaso ziren, Lasarte-Oria udalerriko 13-24 urte bitarteko 162 gazteei egindako aurrez aurreko inkesta baten bidez. Lagina zoriz aukeratutakoa izan zen eroldaren gaineko datuetan oinarrituta, eta konfiantza eta errore tarteak %95,5koa eta %7,3koa izan dira, hurrenez hurren.

EMAITZAK

I

1) *Ama euskalduna dutenek eta ama erdalduna dutenek, nahiz batzuek eta besteek euskara 0-3 urte bitartean jaso izan, guztiz bestela jokatzen dute euskarari dagokionez. Ez da egokia ama-hizkuntza kategorian eta euskara bigarren hizkuntza kategorian bakarrean biltzea.*

***Ez da egokia
ama-hizkuntza
kategoria eta
euskara bigarren
hizkuntza
kategoria
bakarrean
biltzea.***

Arras desberdinak direla sozializazio mota batek eta besteak gazteen hizkuntza gaitasunean (alderdi kognitiboa), hizkuntza erabileran (alderdi soziala eta jokaerazkoa) eta hizkuntza atxikimenduan (alderdi afektiboa) eragiten dituztenak. Datuok garbi adierazten dute lehenengo hizkuntza sozializazioak (ama-hizkuntza) bigarren hizkuntza sozializazioaren aurrean duen nagusitasuna.

Psikologiak ongi adierazia du pertsona baten lehen hizkuntza —gurasoengandik jasota, harreman sare sakonki afektibo batean— nola txirikordatzen den ezinbestean haurren gizarte jokaerarekin, gogamenaren garapen kognitiboarekin eta sentimenaren garapen afektiboarekin. Lehen hizkuntzaren uztardura sakon hauek humus trinkoa uzten dute haurraren izaeran, eta urtetan luze irauten dute euren jokaeraren eta izaeraren motor gisa. Ez dirudi, ordea, bigarren hizkuntzan jasotako sozializazioak lehenaren adinako indarra duenik haurraren jokaera eta nortasuna bideratzeko garaian.

1. taula. Euskara ama hizkuntza edo bigarren hizkuntza bezala dutenen artean hizkuntza adierazleen argitan

	Euskara ama hizkuntza bezala jaso dutenak	Euskara bigarren hizkuntza bezala jaso dutenak
Egun oso ongi mintzatzen dira euskaraz	%90,4	%38
Lagun euskaldunekin beti edo ia beti egiten dute euskaraz	%69,2	%26
Euskara dute hizkuntza kutuna erabat	%76,9	%22

Taula 1. Gazteek euskara noiz ikasi duten kontuan harturik bi kategoria osatu dira: batetik, etxean bertan amaren bidez jaso dutenak (ama-hizkuntza) eta, bestetik, gazterik jaso arren (0-3 urte bitartean), haur eskolan jaso dutenak (bigarren hizkuntza). Bi kategoria hauek alderatu dira hiru hizkuntza adierazleren argitan. Gazteen egungo hizkuntza gaitasunaren, kaleko erabileraren eta hizkuntzarekiko atxikimenduaren berri ematen dute hiru adierazle hauek.

Goiko taulan emandako datuei erreparatuz gero (taula 1), ikus daiteke arras desberdinak direla sozializazio mota batek eta besteak gazteen hizkuntza gaitasunean (alderdi kognitiboa), hizkuntza erabileran (alderdi soziala eta jokaerazkoa) eta hizkuntza atxikimenduan (alderdi afektiboa) eragiten dituztenak. Datuok garbi adierazten dute lehenengo hizkuntza sozializazioak (ama-hizkuntza) bigarren hizkuntza sozializazioaren aurrean duen nagusitasuna.

Sistemen teoria ezagutzen duena ez da harrituko ohartuta zein nolako eragin handia duen sistema baten konfigurazioan informazioa sistemara ailegatzen deneko ordenak (lehenala bigarrena izatea, esaterako). Lehenengo informazio-jarioek sistemaren egitura konfiguratzeko eremua formateatzen dute. Gerora sistemaratuko den informazioak ildo predeterminatu batzuk aurkituko ditu, eta joera izango du nola edo hala aurrenekoetara moldatzeko. Errazagoa da ondorengo informazioak lehenengoaren patroietara egokitzea, oinarritzko ildoak hankaz goratzea

baino. Horretan datza, hain zuzen ere, lehenengo hizkuntza sozializazioaren erabateko indarra eta denboran zehar duen iraunkortasuna.

2) *Bikote euskaldunetan hazitako gazteek euskararen ikuspegitik emaitza handiak edo oso handiak eskuratzen dituzte (gaitasunean, erabileran eta maitasunean). Bikote mistoetan hazitakoek, emaitza nabarmentzekoak. Eta bikote erdaldunetan hazitakoek, emaitza txikiak edo oso txikiak.*

Logikoa dirudi pentsatzea etxearen eremua zenbat eta hizkuntzaren aldetik trinkoagoa izan, orduan eta sozializazioaren emaitzek sendoagoak izan behariko lituzketela. Beheko taulan (taula 2) erakusten diren datuek logika hori bera baieztatzen dute, eta, era berean, eraginaren neurria ematen dute, proportzioak agertuta.

Etxean, hizkuntza eremua, euskarari dagokionez, normalizatua dagoenean (guraso euskaldunak), sozializazioaren emaitzak ere nabarmen hurbiltzen dira neurri normalizatuetara. Ordea, hizkuntza eremua erdibidekoa denean (guraso mistoak), eta, hortaz, asimetrikoa, irregularra eta zailantzekoa, orduan sozializazioaren emaitzak ere urrundu egiten dira, nabarmen, egoera normalizatutik.

2. taula. Gurasoen ezaugarri linguistikoaren arabera hizkuntza adierazleak

	Guraso euskaldunak	Guraso mistoak	Guraso erdaldunak
Egun oso ongi mintzatzen dira euskaraz	92,6	60,0	21,9
Lagun euskaldunekin beti edo ia beti egiten dute euskaraz	72,2	34,3	15,1
Euskara dute hizkuntza kutuna erabat	83,3	31,4	11,0

Taula 2. Hizkuntza gaitasunari, erabilerari eta atxikimenduari lotutako hiru adierazle nagusiak erabili dira kategorien arteko alderaketak egiteko. Lehenengo kategoriak guraso euskaldunak biltzen ditu, eta bai amak bai aitak euskaraz mintzatzeko gaitasun oso ona edo nahiko ona eduki behar dituzte. Guraso mistoen kasuan, aitak ala amak, bietako batek eduki behar euskaraz mintzatzeko gaitasun oso ona edo nahiko ona. Guraso erdaldunen kasuan ez aitak ez amak ez dute mintzatzeko gaitasun ez oso onik ez nahiko onik.

3) *Eskola denean gaztearen euskalduntzearen eremu nagusia edo bakarra, txikiak dira euskararen ikuspegitik jasotzen diren emaitzak (gaitasuna, jokaera eta maitasuna). Ordea, eskolarekin batera etxea ere denean euskalduntzearen eremu, orduan handiak eta onak dira emaitzak.*

Beheko taulan (taula 3) agertzen diren datuek adierazten dutenez, D ereduak badu nolabaiteko eragina hizkuntza adierazleak aktibatzeke.

Bikote euskaldunetan hazitako gazteek euskararen ikuspegitik emaitza handiak edo oso handiak eskuratzen dituzte (gaitasunean, erabileran eta maitasunean). Bikote mistoetan hazitakoek, emaitza nabarmentzekoak. Eta bikote erdaldunetan hazitakoek, emaitza txikiak edo oso txikiak.

D ereduak badu nolabaiteko eragina hizkuntza adierazleak aktibatzeke. D ereduan ibilitakoen artean %31,1ek eskuratzen du oso gaitasun ona euskaraz hitz egiteko. Gainerako hizkuntza adierazleak (jokaerari eta atxikimenduari lotutakoak) jaitsi egiten dira.

Hala, esaterako, ama euskalduna izan gabe D ereduan ibilitakoen artean %31,1ek eskuratzen du oso gaitasun ona euskaraz hitz egiteko. Gainerako hizkuntza adierazleak (jokaerari eta atxikimenduari lotutakoak) jaitsi egiten dira. Hala ere, garbi gelditzen da eskolak berez ez duela behar adinako indarrik hizkuntza adierazleak egoera normalizatu batera eramateko. Adierazle horiek bai, ordea, nabarmen hurbiltzen dira egoera normalizatura D ereduaren atzean ama euskalduna dagoenean. Edo bestela esan liteke —eta agian hauxe izango litzateke berezkoena—, ezen eskolako hizkuntza sozializazioa (D eredu) etxeko berezko sozializazioaren jarraipena denean, orduan gaudela egoera normalizatuaren atarian, eta orduan soilik espero daitezkeela emaitza normalizatuak, nola hizkuntza gaitasunean hala hizkuntza jokaeran eta atxikimenduan ere. D eredu zeharo zabaldua dagoen zonaldeetan, etxeko hizkuntza jokaerak hartu beharko luke arreta nagusia, aurreragoko koska esanguratsua egin ahal izateko euskararen normalizazioan.

3. taula. Hizkuntza adierazleak ama euskalduna eta D ereduan izatearen arabera

	Ama euskalduna + D eredu	D eredu	Ez bata ez bestea
Egun oso ongi mintzatzen dira euskaraz	84,3	31,1	6,7
Lagun euskaldunekin beti edo ia beti egiten dute euskaraz	65,7	24,4	3,3
Euskara dute hizkuntza kutuna erabat	74,3	13,3	7,1

Taula 3. Hiru kategoria agertzen dira taula honetan. Etxea eta eskola aldagaiak nahasi ditugu kategoriak osatzeko. Lehenengo kategoriak honako gazte hauek biltzen ditu: ama euskalduna izateaz gain, eskolaratzea D ereduan egin duten gazteak. Bigarren kategoriak beste honako hauek biltzen ditu: ama erdalduna izan arren, eskolaldia D ereduan egin duten gazteak. Azkeneko kategorian ez bata ez bestea sozializazio baldintzak taxuz ez duten gazteak biltzen dira: ama erdalduna eta eskolaldia A edo B ereduan.

4) *Ezin da berez, automatikoki edo inertziaz espero oraingo gazteek, guraso bihurtzerakoan, euskara hizkuntza nagusitzat hartuko dutela seme-alabekin hitz egiteko.*

Aurreko datu guztiek etxeko hizkuntza giroari eman beharreko garrantzia azpimarratu dute. Nora begiratzeko oharra luzatu digute. Nola, ordea, etxea euskaltoki bihurtzea gero eta gehiago? Bateon batek pentsa lezake etorkizunean gero eta familia euskaldun gehiago berez osatuko direla, eskolaren lanaren ondorioz gero eta gazte euskaldun gehiago baitago bazterretan. Euskaldunen dentsitatea handituta, gero eta probabilitate handiagoak izango dira familia euskaldunak sortzeko. Ezin dugu guztiz

baztertu aukera hau, baina, era berean, komeni da zuhurtziaz jokatzea, eta ez uztea joko osoa berezko inertzia demografikoari.

Badira, besteak beste, bi datu zuhurtziara garamatzatenak.

Lehenengo datuak hizkuntza gaitasunarekin du lotura zuzena. Aspaldian nago ni euskaldun kontzeptua, gaitasunari dagokionez bederen, orokorregi dela, eta garbiketaren beharra duela. Normalean, ikerketen datuak interpretatzerakoan, euskaldun kategoriapean eskalako goiko kosketan dauden kideak batu ohi ditugu. Koska horietan ditugu euskaraz “oso ongi” eta “nahiko ongi” mintzatzen direnak, hain zuzen ere; baina, egia esan, bi multzo horiek hainbatetan berezita agertzea hobe genuke, irudi argiagoak eman eta interpretazio zuzenagoak egingo baditugu.

Ondorengo bi tauletan (taula 4 eta taula 5) oinarrizko datu batzuk ematen ditugu ikusteko nola batzuek (“oso ongi” mintzatzen direnak) eta besteek (“nahiko ongi” mintzatzen direnak) joerak guztiz bestelakoak erakusten dituzten hala hizkuntza jokaeran nola hizkuntza atxikimenduan. Joera berberak agertzen dira adin bereko kideen arteko harremanak izan (lagunen artekoan, edo anai-arreben artekoan), edo goitik beherako harremanak izan (gurasoen eta seme-alaben artekoan). Joera bera agertzen da etxean eta kalean ere (lagunartean).

Joera horren arabera, erdaldun gisa jokatzeko joera izaten du euskaraz “nahiko ongi” mintzatzen den lagunak. Nolabait esatearren, “nahiko ongi” hitz egiten duenak adierazten du oraindik ez duela euskalduntze prozesua guztiz burutu, eta, hortaz, zailtasunak, mugak eta deserosotasunak oraindik presente dituela. Eta hori guztia, elebiduntasun egoera batean, non eskura baduen, burugabeko horren ondoan, beste hizkuntza bat erabat barneratua, koipeztuta eta osoa. Kontuak hala, ez dirudi harriagarria berezko joerak erdararen aldera jotzea, euskararen kaltean, berezko joerak, ahal duela, biderik errazena aukeratzen baitu beti.

4. taula. Hizkuntza adierazleak euskaraz oso ongi eta nahiko ongi egiten duten gazteen artean

	<i>Euskaraz oso ongi mintzatzen diren gazteak</i>	<i>Euskaraz nahiko ongi mintzatzen diren gazteak</i>
Lagun euskaldunekin <i>beti edo ia beti</i> egiten dute euskaraz	59,8	19,2
Euskara dute hizkuntza kutuna <i>erabat</i>	65,5	13,5

**Ezin da berez,
automatikoki edo
inertziaz espero
oraingo gazteek,
guraso
bihurtzerakoan,
euskara
hizkuntza
nagusitzat
hartuko dutela
seme-alabekin
hitz egiteko.**

**Erdaldun gisa
jokatzeko joera
izaten du
euskaraz “nahiko
ongi” mintzatzen
den lagunak.**

Taula 4. Hizkuntza gaitasuna dela eta, “oso ongi” eta “nahiko ongi” alde txikia dirudien arren, alde txiki horrek eragin determinantea du hizkuntza jokaeran bezala hizkuntza atxikimenduan ere.

Datu honek ez luke garrantzi berezirik izango ez bageneki egungo gizarte baldintzetan euskalduntzen ari diren gazte gehienek ez dutela lortzen “oso ongi” hitz egitea euskaraz, eta, hortaz, kopuru handiak ditugula “nahiko ongi” mailan edo beheragoko mailetan. Horiek hala, euskaldunen kopuruak gora egin arren, euskaldungo horren kalitateak, hizkuntza gaitasunari dagokionez, ez du berez ziurtatzen gazte askok eta askok joera izango dutenik euskaraz aritzeko, ez orain, lagun eta kideen artean, ez gero, egun batean guraso bihurtzerakoan.

5. taula. Hizkuntza adierazleak amak, aitak eta anai-arreben euskara gaitasunaren arabera

	<i>Seme-alabarekin (edo anai-arrebarekin) beti edo ia beti egiten du euskaraz</i>
Amak <i>oso ongi</i> daki euskaraz	76,8
Amak <i>nahiko ongi</i> daki euskaraz	22,2
Aitak <i>oso ongi</i> daki euskaraz	82,7
Aitak <i>nahiko ongi</i> daki euskaraz	0
Anai-arrebek <i>oso ongi</i> dakite euskaraz	52,1
Anai-arrebek <i>nahiko ongi</i> dakite euskaraz	0

Taula 5. Hiru harreman mota aztertzen dira: 1) amaren eta seme-alaben arteko hizkuntza harremana, 2) aitaren eta seme-alaben arteko hizkuntza harremana, eta 3) anai-arreben arteko hizkuntza harremana. Aipatutako harreman horietan, kideek hizkuntza jokaera euren hizkuntza gaitasunaren arabera nola aldatzen duten ikusten da. Zehazki, bi hizkuntza gaitasun egoera hartzen dira aintzat: euskaraz “oso ongi” hitz egin edo “nahiko ongi” hitz egin.

Zuhurtziara garamatzen bigarren datuak denborarekin du zerikusia. Eskolaldia bukatzen denetik guraso bihurtu bitarteko epea gero eta zabalagoa da garaiotan. Une batetik eta bestearen artean hamabosten bat urte pasa daitezke erraz gaur egun. Beraz, bitarte luze honetan zehar gazteek izango dituzten hizkuntza esperientziek zeharo marka dezakete euren hizkuntza joera euskararen ala erdararen aldera makurtzeko. Egun, aukera gehiago ikusten ditugu bitarte luze horretan hizkuntza gaitasuna are gehiago kamusteko ontzeko baino. Eskura ditugun datuen arabera, antzematen dugu guraso garaira hizkuntza gaitasun kamutsarekin iristen diren gehienek erdararako joera izaten dutela (Ikusi 5. taula).

AZKENEKO HAUSNARKETA, ONDORIO GISA

I Eskola bidezko jarduna izan da —eta egun ere hala da— belaunaldi berrien euskalduntzerako bitartekorik ahaltsuena. Lasarte-Oria udalerrian fokua jarriz gero, %100ra iritsita dago dagoeneko D ereduaren zabalkundea herriko ikastetxe guztietan. Hala ere, bitarteko ahaltsua izanagatik, haren ahalmena mugatua dela ezin dugu ahaztu, datuek behin eta berriz erakusten digutenez. Lasarte-Orian eskola guztiz euskalduna zeharo zabalduta dagoen garaian, euskararen kale-erabilera 2010-13 tartean 29,8 puntukoa izan da —Lasarte-Oriako euskara zerbitzuak emandako datua—, eta 38,3 puntukoa gure ikerketaren harira gazteek aitortutakoa. Nola iritsi orduan erabilera portzentaje altuagoetara —demagun %60ra— oraino izan dugun bitartekorik ahaltsuena —eskola— emaitza mugatuak erakusten baditu?

Bestelako bitarteko ahaltsuak abiatu beharra dago, beraz, belaunaldi berrien euskalduntzea bururaino eramateko. Hurrekin eta gazteekin lantzen den aisialdia tresna horietako bat da, eta hortaz asko dakite Lasarte-Orian bertan, non urteen poderioz sare zabal eta trinkoa ehundu duten herriaren (Ttakun Euskara Elkarte) eta erakundeen (Udaleko Euskara Zerbitzua) arteko sinergiari esker.

Familiaren eremua dugu beste eremu funtsezkoetako bat. Utz bekigu azken datu batzuk ematen. Azken hamar urteotan Lasarte-Oriako gazteen euskararen erabilera aitortua %20,4tik %38,3ra pasa bada ere, ikustekoa da ezen familia euskaldunen bilakaera ere oso antzekoa izan dela denbora tarte berdinean, eta, hala, 2002. urtean %17,4 baziren familia euskaldunak, %33,4 ziren 2012. urtean. Badirudi, orduan, euskararen kale erabilera lagunartean oso lotua ageri dela etxeetan dagoen hizkuntza jokaerarekin. Bestela esanda: etxeetako euskararen erabilera handitzearekin batera etorriko da, seguru asko, euskararen kale erabilera informalaren hazkundera, antzeko proportzio eta neurrian. Jakitun gara familia eremuan eragiteak berekin dituen zailtasunak eta mugak, oso eremu pribatu eta afektiboa denez gero. Baina, hala eta guztiz ere, ezin diogu bizkar eman bide emankorrak bilatzen saiatzeari. Hurrengo urteetarako erronka handia dugu bertan, eta ordu asko, irudimen ugari, eta jende andanaren ahaleginik onenak beharko ditugu eremu honetan urrats esanguratsuak emango baditugu. Hala bedi! ●

Etxeetako euskararen erabilera handitzearekin batera etorriko da, seguru asko, euskararen kale erabilera informalaren hazkundera.